



BILERA AKTA / ACTA DE LA REUNIÓN

ZEHAZTASUNAK / ESPECIFICIDADES

Gaia edo arloa: Gipuzkoako Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua

Tokia: Meet Jitsi (bideo-bilera)

Eguna: 2020-06-05

Ordua: 17:00

BERTARATUTAKOAK / ASISTENTES Y ASISTENTAS

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	Erakundea / Entidad
Manolo Aierbe	Udala
Pablo Murias	Udala
Aitor Garro	Federazioa
Jose Angel Rial	Federazioa
Joxe Mari Urkiola	Federazioa
Iban Pérez	Federazioa
Hannelore Holke	Federazioa
Xabier Sorondo	Ikastetxea
Oinatz Agirre	Ikastetxea
Unai Esnal	Ikastetxea
Asier Auzmendi	Ikastetxea
Fernando Urien	Ikastetxea
Alicia Figueroa	Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (gonbidatua)
Eneritz Maiora	Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (gonbidatua)
Goizane Álvarez Irijoa	GFA
Iñaki Iturrioz	GFA
Itsaso Nabaskues	GFA
Begoña Irazu	GFA

GAI-ZERRENDA / ORDEN DEL DÍA

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea. <i>* Aurreko bilerako akta atxikitzen da.</i>	1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior. <i>* Se adjunta acta de la reunión anterior.</i>
2. 2019-2020 Eskola kiroleko programa bertan behera uztea. Ondorioak.	2. Suspensión del Programa de Deporte Escolar 2019-2020. Consecuencias.
3. Udako kirol jarduerak: uda kanpaina eta campusak.	3. Actividades deportivas de verano: campaña uda y campus
4. 2020-2021 eskola kiroleko programarako eszenatokiak.	4. Posibles escenarios de cara al programa de Deporte Escolar 2020-2021.
5. Ekainean 2020-2021 eskola kiroleko programa onartzen duen foru agindua onesteko	5. Propuesta para aprobar en junio el programa de Deporte Escolar 2020-2021.



proposamena. <i>* Atxikituta programa onesten duen foru aginduaren zirriborra eta egindako aldaketak jasotzen duen laburpen taula.</i>	<i>* Se adjuntan el borrador de la orden foral y la tabla resumen en la que se recogen los cambios más significativos.</i>
6. Eskola kiroleko aplikazioan egindako aldaketa nabarmenenak: izen-emateak.	6. Cambios en la aplicación de deporte escolar: inscripciones.
7. 2020-2021 ikasturtean eskola kiroleko lizentziak modu masiboan ez emititzeko proposamena.	7. Propuesta para la no emisión de licencias masivas en curso escolar 2020-2021.
8. Baimendutako hastapeneko unitateen araudia (kirol eskolak): testu bateginak.	8. Normativa sobre las unidades de iniciación autorizadas (escuelas deportivas): textos refundidos.
9. Izaera pertsonaleko datuen kudeaketarako hartu nahi diren neurriak.	9. Medidas a adoptar para la gestión de los datos de carácter personal.
10. Eskola kiroleko dirulaguntzetan COVID-19ak izandako eragina.	10. Consecuencias del COVID-19 en las subvenciones de Deporte Escolar.
11. Bestelakoak	11. Otras cuestiones.

EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK / DEBATES Y ACUERDOS

Goizane Alvarezek eskerrak eman dizkie bileran parte hartzeagatik, eta laster normaltasuna berreskuratzea espero dute. Adierazi du, bileran eskola kirolean hartu behar izan diren neurriak aztertuko direla, UDA kanpaina eta kirol hastapeneko unitateen (kirol eskolak) inguruko testu bateginaren proposamena barne.	Goizane Álvarez agradece a los y las presentes su participación en la reunión, y esperan que pronto se pueda recuperar la normalidad. Señala que en la reunión se van a tratar las medidas que se han tenido que adoptar en el deporte escolar, incluyendo la Campaña UDA, y la propuesta del texto refundido en materia de las unidades de iniciación deportiva (escuelas deportivas).
1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onestea. <i>* Aurreko bilerako akta atxikitzen da.</i>	1. Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior. <i>* Se adjunta acta de la reunión anterior.</i>
Se aprueba por unanimidad.	Se aprueba por unanimidad.
2. Bertan behera uztea 2019-2020 Eskola Kiroleko programa. Ondorioak.	2. Suspensión del Programa de Deporte Escolar 2019-2020. Consecuencias.
Iñaki Iturriozek foru agindu honen berri eman du: COVID-19ak sortutako alarma egoeraren ondorioz 2019-2020 Eskola Kiroleko programa eta programatik kanpoko jarduerak (2020ko ekainaren 30era arte baimendutakoak) eten zituen Foru Agindua. Informazio hori Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko kideei bidali zitzaien.	Iñaki Iturrioz informa sobre la Orden Foral que suspendió el programa de deporte escolar 2019-2020 y las actividades fuera del programa que fueron autorizadas hasta el 30 de junio, como consecuencia del estado de alarma producido por el COVID-19, cuya información se envió a los y las miembros del éste Consejo Territorial de Deporte Escolar.
Ez dago horri buruzko inolako zalantzarik eta	No hay dudas ni comentarios al respecto.



iruzkinik.	
3. Udako kirol jarduerak: Uda Kanpaina eta kanpusak	3. Actividades deportivas de verano: Campaña Uda y campuses
Aurreko puntuari dagokionez, Iñaki Iturriozek gaineratzen du aipatutako foru agindu horrekin UDA kanpaina ere bertan behera geratu zela, jarduera horiek udalek antolatzen dituztela eta eskola kiroleko programaren barruan sartzen direla. Hala ere, konfinamendua arintzearen faseetan hartzen ari diren neurriak eta bilakaera ikusita, posible izango da UDA Kanpainaren barruan sartzen diren jarduerak antolatzea.	En relación con el punto anterior, Iñaki Iturrioz añade que mediante dicha orden foral también se suspendió la Campaña UDA, que son actividades organizadas por ayuntamientos y que forman parte del programa de deporte escolar. No obstante, en vista de la evolución y las medidas que se van tomando en las diferentes fases de la desescalada, va a ser posible la organización de las actividades que se enmarcan dentro de la Campaña UDA.
Gainera, 2020ko uztailaren 1etik aurrera, eskola kiroleko programatik kanpoko jarduerak ere baimenduko dira, eta horiek Kirol Zerbitzuaren alde aurreko baimena beharko dute. Eskaera telematikoki egin beharko da, orain arte bezala.	Además, a partir del 1 julio de 2020, se autorizarán también las actividades fuera del programa de deporte escolar, las cuales requieren de previa autorización del Servicio de Deportes. La solicitud se realizará de forma telemática, como hasta ahora.
Ez dago horri buruzko inolako zalantzarik eta iruzkinik.	No hay dudas ni comentarios al respecto.
4. 2020-2021 eskola kiroleko programarako eszenatokiak.	4. Posibles escenarios de cara al programa de Deporte Escolar 2020-2021.
Iñaki Iturriozek esan du hezkuntza sistemak erabakitzen duenaren adi gaudela. Azken berria zentroetara normaltasunez itzultzeari buruzkoa izan da. Aldundiak proposatzen duena da hainbat agertoki eta horien aurrean nola jokatu planteatzea. Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien artean batzorde berezi bat sortzea proposatu da, federazioen eta ikastetxeen bidez aztertzeko, datorren ikasturteari begira, zer neurri har daitezkeen eskola kiroleko arloan aurki ditzakegun agertoki desberdinetan. Horri dagokionez, gaineratzen du aurreikusten diren agertoki desberdinen inguruan Kontseiluko kideen ikuspuntua zein den jakitea gustatuko litzaiokeela.	Iñaki Iturrioz comenta que estamos atentos a lo que decida el sistema educativo. El ultimo globo sonda ha sido el de recuperar con cierta normalidad la vuelta a los centros educativos. Lo que se plantea desde Diputación es el planteamiento de diferentes escenarios y cómo actuar antes estos. Se ha propuesto crear una comisión especial entre Gobierno Vasco y las Diputaciones para analizar, a través de las federaciones y también los centros educativos, qué medidas se pueden adoptar en los diferentes escenarios que nos podemos encontrar en el ámbito del deporte escolar de cara al curso escolar que viene. A este respecto, añade que se quisiera conocer el punto de vista de los y las miembros del Consejo sobre los diferentes escenarios que se prevén.
Fernando Urienek adierazten du ikastetxeek ez dakitela zer gertatuko den, eta uste du ezin dutela ekarpen handirik egin. Adierazten du ziurgabetasun handia dagoela datorren ikasturteari begira izan daitezkeen agertokiaren aurrean.	Fernando Urien indica que en los centros educativos no saben qué es lo que va a pasar. Considera que no puede aportar gran cosa. Indica que existe una gran incertidumbre de cara a los posibles escenarios del curso escolar que viene.
Iñaki Iturriozek esaten du, ziurgabetasun handi hori egonagatik, izan daitezkeen agertoki desberdinak planteatu ditzakegula.	Iñaki Iturrioz comenta que a pesar de esa gran incertidumbre podemos ir planteando diferentes posibles escenarios.



<p>Unai Esnalek dio egunetik egunera hezkuntza esparruan nola jokatu behar denaren inguruan aldaketak daudela. Kezka nagusia honakoa dela dio: urrian beste eszenatoki batean egongo bagina Eskola Kirolari nola eragingo dio? Kezkatuak daude eszenatoki desberdinek Eskola kirolean izango dituzten ondorioetan (begiraleak, dirulaguntzak, antolaketan, etab.).</p>	<p>Unai Esnal dice que cada día hay cambios sobre cómo actuar en el ámbito educativo. Dice que la principal preocupación es que si en octubre estuviéramos en otro escenario, ¿cómo afectará al Deporte Escolar? Preocupados por las repercusiones de los diferentes escenarios en el Deporte Escolar (monitores, subvenciones, organización, etc.).</p>
<p>Oso bortitza izango litzake berrero ere online zerbitzua eskaini behar izatea, nahiz eta azken hilabete hauetan hala aritu diren. Online formatuan Eskola Kirolak bere nortasuna galtzen duela uste du.</p>	<p>Sería muy violento tener que volver a ofrecer un servicio online, a pesar de que lo han venido haciendo en los últimos meses. Cree que el Deporte Escolar pierde su identidad en formato online.</p>
<p>Iñaki Iturriozek gaineratzen du 3. fasean (ekainaren 8tik aurrera) pertsonen arteko elkarrekintza arintzea dela aurreikuspena eta udako ekintzetan ere aritzen joango direla hartu beharreko neurriak. Duela aste batzuk ezinezkoak ikusten genituen gauzak beharbada bideragarriak izango dira datorren ikasturtearen hasieran.</p>	<p>Iñaki Iturrioz añade que la previsión es que en la fase 3 (a partir del 8 de junio) se agilice la interacción entre las personas y que las medidas a tomar se vayan desarrollando también en las actividades de verano. Cosas que hace unas semanas veíamos imposibles pueden ser viables a principios del próximo curso.</p>
<p>Asier Auzmendik dio urriaz hitz egiteko goizegi dela, urria antolatzea oso zaila egiten zaiola eta alferrik izan daitekeela. Nahiko lan dutela orain hemendik 2-3 asteko jarduerak antolatzeko. Aurrerago biltzeko aukera mahai-gaineratzen du. Izan ere, ikasturtea hasi eta hilabeteko margenarekin gai hau lantzea egokiagoa ikusten du. Hala, irailean Eskola Kiroleko programa antolatzeko eta hartu beharko diren neurriak zehazteko iraila hasierara arte itxarotea proposatzen du.</p>	<p>Asier Auzmendi dice que es demasiado pronto para hablar sobre octubre, que organizarlo le resulta muy difícil y que puede ser inútil. Que ahora tienen bastante trabajo para organizar actividades de 2-3 semanas de aquí. Incluye la posibilidad de reunirse más adelante. De hecho, ve más adecuado tratar este tema con un margen de un mes desde el inicio del curso. Así, propone esperar a principios de septiembre para organizar el programa de Deporte Escolar en septiembre y concretar las medidas a adoptar.</p>
<p>Fernando Urienek gaineratzen du agian ezin dela ikasturte osoko plan bat planteatu, Ikastetxeak, klubak, familiak etab. nola egongo diren ez dakigulako. Zerbait planteatzekotan oso epe motzean izan behar duela edo beranduago landu beharreko gaia dela uste du.</p>	<p>Fernando Urien añade que igual no se puede plantear un plan de curso completo porque no sabemos cómo van a estar los centros, los clubes, las familias, etc. Considera que si se plantea algo tiene que ser en un plazo muy corto o es un tema que hay que tratar más adelante.</p>
<p>Alicia Figueroak adierazten du Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioan udarako kanpaina prestatzen ari direla. Uste du aukera bat irekitzen dela gauza berriak diseinatzeko, eta hori berrasmatzeko unea dela. Bestalde, bilera honetatik mahai tekniko bat ateratzea proposatu du, irtenbideak bilatzeko eta Aldundiak gidatutako aldaketa berri bat partekatzeko eta eraikitzeko.</p>	<p>Alicia Figueroa comenta que desde la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado están preparando la campaña de verano. Considera que se abre una oportunidad para diseñar nuevas cosas, que es momento para reinventarse. Propone que de esta reunión salga una mesa técnica para buscar soluciones y para compartir y construir un nuevo cambio liderado por Diputación.</p>
<p>Iñaki Iturriozek gaia ixteko gaineratzen du irailean Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluarekin berreskuratuko dugula kontaktua gaia jorratzen</p>	<p>Iñaki Iturrioz cierra el tema añadiendo que en septiembre recuperaremos el contacto con el Consejo Territorial de Deporte Escolar para seguir</p>



jarraitzeko.	tratando el tema.
Bien bitartean, Kirol Zerbitzutik Eusko Jaurjaritzarekin eszenatoki horien azterketen aurreikuspenean lanean hasiko gara, bestelako eragileak eta faktoreak kontuan hartuz.	Mientras tanto, desde el Servicio de Deportes comenzaremos a trabajar con el Gobierno Vasco en la previsión de los análisis de estos escenarios, teniendo en cuenta otros agentes y factores.
5. Ekainean 2020-2021 eskola kiroleko programa onartzen duen foru agindua onesteko proposamena. <i>* Atxikituta programa onartzen duen foru aginduaren zirriborra eta egindako aldaketak jasotzen duen laburpen taula.</i>	5. Propuesta para aprobar en junio el programa de Deporte Escolar 2020-2021. <i>* Se adjuntan el borrador de la orden foral y la tabla resumen en la que se recogen los cambios más significativos.</i>
Iñaki Iturriozek adierazten du ikastetxeek ikasturtea amaitu baino lehen onestea eta zabaltzea dela asmoa. Astelehenean 2020-2021eko Eskola Kiroleko programa onesten duen foru agindua aurkeztuko zaio Foru Aldundiari, eta ondoren foru agindu hori izapidetzea da asmoa. Aurretik eman beharreko urrats bat da Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilu honi kontsulta egitea. Programaren esparrua ohikoa izango litzateke, eta salbuespen gisa, Kirol Zerbitzuko zuzendariari ahalmena ematen zaio programan aldaketak egiteko, COVID-19ak ekar ditzakeen arrazoiengatik.	Iñaki Iturrioz indica que la intención es aprobarla y difundirla antes de que los centros escolares acaben el curso escolar. El lunes se presentará la orden foral que aprueba el programa de deporte escolar 2020-2021 al Diputado Foral y, posteriormente, la idea sería darle trámite. Un paso previo es la consulta a este Consejo Territorial de Deporte Escolar. El marco del programa sería el convencional, con la excepcionalidad de que se habilita a la Directora del Servicio de Deportes a realizar modificaciones en el programa por motivos que pueda acarrear el COVID-19.
Itsaso Nabaskuesek 2020-2021eko Eskola Kiroleko Programarako proposatzen diren aldaketa esanguratsuenak aurkezten ditu (ikus erantsitako laburpen taula). Dokumentuaren aurkezpena egin ondoren, ekarpenak eta zalantzak argitzeko txandari tartea ematen zaio.	Itsaso Nabaskues presenta los cambios más significativos que se proponen para el programa de deporte escolar 2020-2021 (véase la tabla resumen adjunta). Tras la presentación del documento, se abre el turno para realizar aportaciones o aclarar dudas.
Unai Esnalek eskerrak eman ditu izen-emate sistema aldatzeagatik, horien kudeaketa nabarmen arinduko duelako.	Unai Esnal agradece la modificación en el sistema de inscripciones, ya que agilizará de manera significativa la gestión de las mismas.
Fernando Urienek azaltzen du Unai Esnalekin ados dagoela.	Fernando Urien se muestra de acuerdo con Unai Esnal.
Surfeko hastapeneko jardueri dagokienez, berak üste du hartutako neurri horrek ez duela konpontzen azkenengo bileran salatutako arazo hura, hau da: lehendabizi izena ematen duen taldeari esleitzea plaza. Galdetu du ea GOTek antolatutako orientazioko lehiaketa jarduerak ere infantil eta kadete kategorietako ikasleei zuzenduta egongo diren. Itsaso Nabaskuesek adierazi du begiratuko duela eta bere galderari erantzungo diola.	Respecto a las actividades de iniciación de surf, piensa que la medida que se ha planteado no resolverá el problema que denunció en la última reunión: que se adjudique la plaza a aquel grupo que realice primero la inscripción. Pregunta si las actividades de competición de orientación organizadas por GOT estarán también dirigidas a escolares de categoría infantil y cadete. Itsaso Nabaskues indica que lo mirará y contestará a su pregunta.
Béalde, gaineratu du Zarautzen oso esperientzia	Por otro lado, añade que en Zarautz han tenido una



<p>positiboa izan dutela EKE taldeekin, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren lankidetzari esker. Bergarako tokiko egitura zoriondu du EKE taldea bere programan sartzeagatik.</p>	<p>experiencia muy positiva con los grupos EKE, gracias a la colaboración de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado. Felicita a la estructura local de Bergara por haber incorporado el grupo EKE dentro de su programa.</p>
<p>Azkenik, adierazi du positiboa iruditzen zaiola Aldundiak zirkuko jarduerak hastapeneko programaren barruan sartu izana. Programako zirkuko jarduerak antolatzen dituen taldeari buruz galdetzen du. Itsaso Nabaskuesek dio Xomorro Taldea izena duela eta Donostiakoa dela.</p>	<p>Por último, indica que le parece positivo que la Diputación haya añadido las actividades circenses dentro del programa de iniciación. Pregunta por el grupo que organiza las actividades circenses del programa. Itsaso Nabaskues le dice que se llama Xomorro Taldea y es de Donostia.</p>
<p>Joxe Mari Urkiolak adierazi du oso garrantzitsua iruditzen zaiola eskola kiroleko programan argi eta garbi adieraztea lehiaketetan hasteko adinari buruzko terminologia; izan ere, gai gatazkatsua izaten da, haren interpretazio desberdinak direla eta.</p>	<p>Joxe Mari Urkiola indica que le parece muy importante que en el programa de deporte escolar se indique de forma clara la terminología respecto a la edad de iniciación en competiciones, ya que suele resultar un tema conflictivo dadas las diversas interpretaciones de la misma.</p>
<p>Gaineratzen du Kayak Surfa eskola kiroleko programaren barruan dagoen modalitate bat dela, eta hortaz, infantil kategoriatik aurrera praktikatzen dela. Laster, lehiaketarako oinarriak Aldundiari bidaltzea espero dute.</p>	<p>Añade que el Kayak Surf también es una modalidad dentro del programa de deporte escolar, la cual se practica a partir de categoría infantil. Esperan poder mandar a Diputación las bases de competición actualizada próximamente.</p>
<p>Pablo Murias ere ados dago eskola kiroleko aplikazioaren izen emate sistema berriarekin, eta gaineratzen du positiboa iruditzen zaiola eskola lizentziak masiboki ez emateari buruzko ekimena.</p>	<p>Pablo Murias también muestra su acuerdo respecto al nuevo sistema de inscripciones de la aplicación de deporte escolar y, añade que le parece positiva la iniciativa respecto a la no emisión de las licencias escolares de forma masiva.</p>
<p>Gaineratu du Irunen ere esperientzia positiboak izan dituztela EKI taldeetan, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren eskutik. E2-ri begira, EKI taldeek eragiten duten kostu gehigarria kontuan hartzea proposatu du, ekonomikoki jasagarriak izan daitezten. Iñaki Iturriozek erantzun dio ikasturte honetan partida txiki bat bideratu dela EKI taldeak finantzatzeko. Aldundiaren asmoa da EKE sarea eskola kiroleko tokiko egituretan erabat integratuta egotea eta, bestetik, EKI taldeak indartzea. Horretarako, gai izan behar dugu bide egonkor bat ezartzeko, bide horretan lagundu ahal izateko, eboluzionatzen eta erantzuna ematen joateko. Jakinarazten du kirol inklusiboko gida bat ere ari direla lantzen, eta espero du bide horri ekonomikoki eusten jarraitzea.</p>	<p>Añade que en Irun también han tenido experiencias positivas en grupos EKI de la mano de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado. Propone que de cara al E2, se tenga en cuenta el coste adicional que suponen los grupos EKI para que puedan ser económicamente sostenibles. Iñaki Iturrioz le contesta que este curso escolar se ha destinado una pequeña partida para la financiación de los grupos EKI. La intención de Diputación es que la red EKE pueda estar totalmente integrada en las estructuras locales de deporte escolar y, por otro lado, reforzar los grupos EKI. Para ello es necesario ser capaces de establecer una vía estable en la que poder apoyarnos, para ir evolucionando y dando respuesta. Informa de que también se está trabajando en una guía de deporte inclusivo y espera que podamos seguir soportando ese camino económicamente.</p>
<p>Asier Auzmendik galdetu du txirrindularitzan benjaminek lehiaketak egiten jarraitu ahal izango duten, garrantzitsua iruditzen zaiola lehiaketa horiek</p>	<p>Asier Auzmendi pregunta si en ciclismo los benjamines van a poder seguir realizando competiciones. Que le parece importante regularizar</p>



<p>erregularizatzea edo Federazioari argi eta garbi adieraztea ezin dituztela egin. Begoña Irazuk erantzuten dio txirrindularitzako lehiaketak alebin kategoriatik aurrera egin daitezkeela eta hori Federazioari jakinarazi zaiola. Iñaki Iturriozek gaineratzen du azken urteetan elkarrizketak izan direla Federazioarekin eta ikuspuntu desberdinak daudela lehiaketen gaiaren inguruan. Dioenez, asmoa da txirrindularitzako federazioari txapelketen formatuan aldaketa bat planteatzea.</p>	<p>esas competiciones o bien indicar de forma clara a la Federación que no pueden realizarlas. Begoña Irazu le contesta que las competiciones en ciclismo se pueden realizar a partir de categoría alevín y que eso ya se le ha comunicado a la Federación. Iñaki Iturrioz añade que en los últimos años se han mantenido conversaciones con la Federación y que existen diferentes puntos de vista respecto al tema de las competiciones. La intención es, dice, plantear a la Federación de ciclismo una modificación en el formato de las competiciones.</p>
<p>6. Eskola kiroleko aplikazioan egindako aldaketa nabarmenenak: izen-emateak.</p>	<p>6. Cambios en la aplicación de deporte escolar: inscripciones.</p>
<p>Aurreko puntuan jorratu da.</p>	<p>Se ha tratado en el punto anterior.</p>
<p>7. 2020-2021 ikasturtean eskola kiroleko lizentziak modu masiboan ez emititzeko proposamena.</p>	<p>7. Propuesta para la no emisión de licencias masivas en curso escolar 2020-2021.</p>
<p>5. puntuan jorratu da.</p>	<p>Se ha tratado en el punto 5.</p>
<p>8. Baimendutako hastapeneko unitateen araudia (kirol eskolak): refundidoa.</p>	<p>8. Normativa sobre las unidades de iniciación autorizadas (escuelas deportivas): refundido.</p>
<p>Iñaki Iturriozek azaltzen du, gaur egun hiru foru arau daudela indarrean irakaskuntza jarduerak arautzen dituztenak 5 modalitate/diziplinako eskola kiroleko programatik kanpo (saskibaloi, eskubaloia, futbola, areto futbola eta errugbia). Modalitate/diziplina horiei hastapen unitateak deitzen zaie eta klubetako kirol eskolen bidez egiten dira.</p>	<p>Iñaki Iturrioz explica que actualmente existen en vigor tres normas forales que regulan las actividades de enseñanzas al margen del programa de deporte escolar de 5 modalidades/disciplinas (baloncesto, balonmano, fútbol, fútbol sala y rugby), llamadas unidades de iniciación, las cuales se realizan a través de las escuelas deportivas de los clubes.</p>
<p>Testu bateginaren xedea izan da dauden foru aginduei buruzko informazioa foru agindu bakar batean jasotzea. Aldaketa batzuk egiteko ere aprobetxatu da. Besteak beste, muga geografikoen gaia aldatu da 2019-2020 ikasturtean emandako epai baten ondorioz.</p>	<p>El objetivo del refundido ha sido recoger en una sola orden foral la información relativa a las órdenes forales existentes. También se ha aprovechado para realizar algunas modificaciones. Entre ellas, se ha modificado el tema de los límites geográficos como consecuencia de una sentencia que tuvo lugar en el curso escolar 2019-2020.</p>
<p>Itsaso Nabaskuesek labur azaldu ditu aipatutako Foru Aginduen testu bateginean jasoko diren aldaketa nagusiak. Ondoren, ekarpenak egiteko edo zalantzak argitzeko txanda ireki da.</p>	<p>Itsaso Nabaskues ha procedido a explicar brevemente las modificaciones principales que se van a recoger en el texto refundido de las ordenes forales mencionadas. Posteriormente, se abre el turno para realizar aportaciones o aclarar dudas al respecto.</p>
<p>Fernando Urienek esan du futbol eskolek, eskola kiroleko tokiko mahaiaren adostasuna ez izan arren, Aldundiaren baimena lortzen dutela urtero. Iñaki Iturriozek azaldu du, gaur egun eskola kiroleko tokiko egiturak ez duela botere juridikorik, eta,</p>	<p>Fernando Urien comenta que las escuelas de fútbol, independientemente de no contar con la conformidad de la mesa local de deporte escolar, cada año obtienen la autorización por parte de Diputación. Iñaki Iturrioz explica que actualmente la</p>



<p>beraz, testu bateginean udalaren adostasuna eskatuko dela, alde batetik, eskola kiroleko araudian adierazitakoa indartzeko, eta bestaldetik, Aldundiaren eta udalen arteko koordinazioa garatzeko. Testu bateginaren zirriborroan alderdi hori behar bezala nola jaso aztertzen ari direla adierazten du. Gaineratzen duenez, ziurrenik datorren astean bidaliko zaie Kontseiluko kideei testu bategina, egoki iritzitako ekarpenak egin ditzaten.</p>	<p>estructura local de deporte escolar no tiene poder jurídico y por consiguiente, en el texto refundido se va a solicitar la conformidad del ayuntamiento, con el fin de reforzar lo indicado en la normativa de deporte escolar, la coordinación entre Diputación y Ayuntamientos para el desarrollo de la misma. Indica que se está estudiando cómo recoger de manera adecuada este aspecto en el borrador del texto refundido. Añade que seguramente se enviará el refundido a los y las miembros del Consejo la semana que viene para que realicen las aportaciones que estimen oportunas.</p>
<p>Fernando Urienek uste du aldaketa horren ondorioz ikastetxeek pisu gutxiago izango dutela, nahikoa izango baita udalaren adostasuna; izan ere, udalekin ez dute harreman esturik egunerokotasunean.</p>	<p>Fernando Urien considera que esa modificación ocasionará que los centros escolares tengan menos peso, dado que será suficiente la conformidad del ayuntamiento, con la cual, añade, no tienen una estrecha relación en el día a día.</p>
<p>Begoña Irazuk adierazten du aldatu egin behar izan dela, eskola kiroleko tokiko mahaiak ez duelako izaera juridikorik. Baliteke udaletan eskola kiroleko mahaiari adostasuna eskatzea eta sinatutako dokumentua aurkezten duena udal ordezkaria izatea.</p>	<p>Begoña Irazu indica que es algo que se ha tenido que cambiar dado que la mesa local de deporte escolar no tiene carácter jurídico. Puede que en los ayuntamientos se solicite la conformidad a la mesa de deporte escolar y sea el representante municipal el que presente el documento firmado.</p>
<p>Manolo Aierbek Hernanin udalaren ordezkartzapean bera Eskola Kiroleko mahaiak partaide bat dela dio. Udalak mahai horretan hartutako erabakia sinatzen duela dio.</p>	<p>Manolo Aierbe, en representación del Ayuntamiento de Hernani, dice que él forma parte de la mesa de Deporte Escolar. Dice que el Ayuntamiento firma el acuerdo adoptado en esa mesa.</p>
<p>Asier Auzmendik uste du aldaketa positiboa izan daitekeela. Bestela, Eskola Kiroleko mahaiaren erabaki hori ikastetxe eta klubaren arteko lehiaketa bat ematen du. Baina udalaren izenean badoa, udalak izango du ardura hori. Ikastetxeei kenduko zaio ahalmen hori, indar hori; baina, udaletxeen erabakia eraginkorragoa izan daiteke.</p>	<p>Asier Auzmendi cree que el cambio puede ser positivo. En caso contrario, esta decisión de la Mesa de Deporte Escolar da lugar a una competición entre centros escolares y clubes. Pero si va en nombre del ayuntamiento, será el ayuntamiento quien tenga esa responsabilidad. Se privará a los centros de esa capacidad, de esa fuerza, pero la decisión de los ayuntamientos puede ser más eficaz.</p>
<p>Iñaki Iturriozek ez du uste aldaketa horren bidez ikastetxeei indarra kentzen zaiela. Izan ere, oztopo nagusia da Eskola Kiroleko mahaiak indar juridikorik ez duen egitura bat dela. Ikusi behar da tokian tokiko zein harremana dituen udalak ikastetxeekin. Udalen aldetik interesa egon beharko luke toki mailako egiturari dagokionean, Eskola Kiroleko mahaiaren iritzia kontuan izatea.</p>	<p>Iñaki Iturrioz no cree que con este cambio se quite fuerza a los centros. El principal obstáculo es que la Mesa de Deporte Escolar es una estructura sin fuerza jurídica. Hay que ver qué relaciones tiene el ayuntamiento con los centros escolares. Debería haber interés por parte de los ayuntamientos en cuanto a la estructura local, tener en cuenta la opinión de la mesa de Deporte Escolar.</p>
<p>Fernando Urienek ulertzen du ez dela ikastetxeei</p>	<p>Fernando Urien entiende que no es quitar fuerza a</p>



<p>indarra kentzea, ez zutelako indarririk. Asko gustatu zaio Hernanin egiten dena. Udala eta Eskola Kiroleko mahaiaren arteko koordinazioari dagokionez, Zarautzen oso ezkorrak dira eta horren adierazle dela deritzo azken urteetan beren eskualdetik bileretan udalaren presentzia eskasa. Ez du ikusten udaletik Eskola Kiroleko mahaiaren erabakiak kontuan hartuko direnik.</p>	<p>los centros porque no la tenían. Le ha gustado mucho lo que se hace en Hernani. En cuanto a la coordinación entre el Ayuntamiento y la mesa de Deporte Escolar, en Zarautz son muy pesimistas y se considera que la escasa presencia municipal en las reuniones desde su comarca en los últimos años es un indicador de ello. No ve que desde el Ayuntamiento se vayan a tener en cuenta las decisiones de la Mesa de Deporte Escolar.</p>
<p>Xabi Sorondok txat-aren bitartez honako iruzkina helarazi du: "udaletxeen gain uztea erabakia ez dut ondo ikusten maila tekniko batetik, maila politiko batera pasatzen delako erabakia. Tokian tokiko zinegotziak ez badu "marroirik" nahi baimen guztiak emango ditu...".</p>	<p>Xabi Sorondo ha comentado a través del chat: "No veo bien la decisión de delegar en los ayuntamientos la decisión de pasar de un nivel técnico a un nivel político. Si el concejal local no quiere "marrones", concederá todos los permisos...".</p>
<p>Iñakik dio, hori ekidite aldera, irizpide objektiboetan oinarritutako oniritzia izan beharko duela.</p>	<p>Iñaki dice que, para evitarlo, deberá contar con un visto bueno basado en criterios objetivos.</p>
<p>Goizane Álvarezek gaineratzen du udalaren baimena ez dela udalen iritziz subjektiboaren arabera izango. Bide horretan, eta udalei lana errazte aldera, irizpide objektibo batzuk proposatuko ditugu udalek sinatu beharko duten oniritzian.</p>	<p>Goizane Álvarez añade que la autorización municipal no será conforme a la opinión subjetiva de los ayuntamientos. En este sentido, y con el fin de facilitar el trabajo a los ayuntamientos, propondremos unos criterios objetivos en el visto bueno que deberán suscribir los ayuntamientos.</p>
<p>Oharra:</p>	<p>Nota:</p>
<p><i>Bileran aipatu bezala, 2020ko ekainaren 9an Kirol Zerbitzutik testu bategina bidaltzen da Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko kideei, astebeteko epean dagozkion ekarpenak egiteko.</i></p>	<p><i>Tal y como se indicó en la reunión, el 9 de junio de 2020 desde el Servicio de Deportes se envía el texto refundido a las y los miembros del Consejo Territorial de Deporte Escolar, para que presenten las aportaciones oportunas en el plazo de una semana.</i></p>
<p><i>Kontseiluko zenbait kidek zenbait argibide eskatu dituzte eta ekarpen batzuk ere aurkeztu dituzte. Ekarpenak honako hauek izan dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <i>– Zergatik ez dagoen Futboleko irakaskuntzen araubide espezifikorik alebin kategoriako bigarren urterako emakumezkoentzat, gizonezkoentzat dagoen bezala.</i> <i>– Alebin kategoriako bigarren urterako futboleko irakaskuntzen araubide espezifikoa genero-bereizketarik gabe egiteko eskatu dute.</i> <i>– Aurreko araudian, eskola-kirolaren herri egiturari eskatzen zitzaion kirol-eskola bat baimentzeko adostasuna, eta zirriborro</i> 	<p><i>Varios de los miembros del Consejo han solicitado algunas aclaraciones y también han presentado algunas aportaciones. Las aportaciones han sido las siguientes:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <i>– Porque no existe un régimen específico de las enseñanzas en fútbol para el segundo año de la categoría alevín para la categoría femenina tal y como existe para la categoría masculina.</i> <i>– Solicitan que el régimen específico de las enseñanzas en fútbol para el segundo año de categoría alevín se haga sin distinción de género.</i> <i>– En la normativa anterior se solicitaba a la estructura municipal de deporte escolar la conformidad para que se autorizara una</i>



<p><i>honetan eskola-kirolaren arloan eskumena duen udal-organoak emandako txosten baten bidez egingo dela aldatu da. Eskola-kirolaren herri egituraren iritzia kontuan hartzeko eskatu du.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Jarduerak egiteko aldiak zehazterakoan, ez da berariaz adierazten irailean kirol-eskolek ezin dutela inolako jarduerarik egin.</i> - <i>Jarduera motak zehazterakoan, ez da adierazten Gipuzkoako Foru Aldundiak dagokion kirol-federazioaren laguntzarekin programatutako lehiaketa-saioak igandean soilik egingo direnik, eta, gainera, ezingo dituztela lagunarteko partidarik jokatu.</i> 	<p><i>escuela deportiva y en este borrador se ha modificado por un informe emitido por el órgano municipal competente en materia de deporte escolar. Solicita que se tenga en cuenta la opinión de la estructura municipal de deporte escolar.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>En la determinación de los períodos para realizar las actividades no se indica expresamente que en el mes de septiembre las escuelas deportivas no pueden realizar ningún tipo de actividad.</i> - <i>En la determinación de los tipos de actividades no se indica que las sesiones de competición programadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa con la colaboración de la federación deportiva correspondiente se realizarán exclusivamente en domingo y además, que no podrán disputar partidos amistosos.</i>
<p>9. Izaera pertsonaleko datuen kudeaketarako hartu nahi diren neurriak.</p>	<p>9. Medidas a adoptar para la gestión de los datos de carácter personal.</p>
<p>Itsaso Nabaskuesek adierazten du gehiago hedatu nahi dutela ikastetxeen, klubien eta federazioen bidez eskola kirolean izen emateko aplikazioan jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.</p>	<p>Itsaso Nabaskues indica que se quiere reforzar la difusión de la información respecto al tratamiento de los datos de carácter personal que se recogen en la aplicación de inscripciones de deporte escolar a través de centros escolares, clubes y federaciones.</p>
<p>Iñaki Iturriozek gaineratzen du garrantzitsua dela interesdunek ematen dituzten datuen berri izatea eta haien baimena ematea.</p>	<p>Iñaki Iturrioz añade que es importante que los y las interesadas conozcan y den consentimiento de los datos que aportan.</p>
<p>10. Eskola kiroleko dirulaguntzetan COVID-19ak izandako eragina.</p>	<p>10. Consecuencias del COVID-19 en las subvenciones de Deporte Escolar.</p>
<p>Iñaki Iturriozek dio ez dugula inongo eraginik aurreikusten Eskola Kiroleko dirulaguntzetan eta partida gehienak mantendu direla.</p>	<p>Iñaki Iturrioz dice que no tenemos ninguna incidencia en las subvenciones del Deporte Escolar y que la mayoría de las partidas se han mantenido.</p>
<p>Goizane Alvarezek gaineratzen du negoziazioaren helburu nagusia izan dela egiturazkoa den guztiari eustea, programak bizirik mantentzeko. Hortaz, dirulaguntzek ez dute murrizketarik izan, dirulaguntzen lerroak bere horretan jarraitu du. Arazoak jasan izan dituen kirol jardueretarako materialaren banaketa izan da.</p>	<p>Goizane Álvarez añade que el objetivo principal de la negociación ha sido mantener todo aquello que entendemos que es estructural con el fin de mantener los programas vivos. Por lo tanto, las subvenciones no han sufrido merma, la línea de subvenciones ha seguido intacta. Lo que sí ha sufrido ha sido el reparto de material para actividades deportivas.</p>
<p>COVID-19ak eskola kiroleko dirulaguntzetan izan ditzakeen ondorioei buruz lehenago aipatu den beldurrari dagokionez, adierazten du, datorren urteko aurrekontuei begira, eskola kiroleko izen</p>	<p>En relación al miedo que se ha mencionado anteriormente respecto a las consecuencias que el COVID-19 pueda acarrear en las subvenciones de deporte escolar, indica que, de cara a los</p>



<p>emateak baloratuko direla eta COVID-19aren ondorioz familien egoera sozioekonomikoarekin zerikusia duten kopuruak aztertuko direla. Horrela, neurri bereziak ezarri ahal izango ditugu (txoke planak), eta ikusi ahal izango dugu nola ezar dezakegun dirulaguntzen lerro hori ikasle guztiek kirola egin ahal izatea bermatzeko, inor kanpoan gera ez dadin familia COVID-19aren ondorioz aukera gutxiagoko egoera ekonomiko batean sartu delako. Amaitzeko, adierazten du Aldundiak plan estrategikoan defendatzen jarraituko duela kirola egitea tresna garrantzitsua dela osasunerako eta sozializatorako, eta eragile ekonomiko ere badela.</p>	<p>presupuestos del año que viene, se valorarán las inscripciones de deporte escolar y se analizará cuántas tienen que ver con la situación socioeconómica de las familias a causa del COVID-19. De esta forma podremos implantar medidas especiales (planes de choque) y ver de qué manera podemos implementar esa línea de subvenciones para garantizar el acceso a la práctica deportiva de todos y todas las escolares con el objetivo de que nadie se quede fuera como consecuencia de que su familia haya entrado en una situación económica de menores posibilidades por motivos del COVID-19. Para cerrar, comenta que en el plan estratégico desde Diputación se seguirá defendiendo que la práctica deportiva es una importante herramienta para la salud y la socialización, además de un motor económico.</p>
<p>Unai Esnalek galdetzen du ea joan-etorrien atalean ondorioz egongo den. Iñaki Iturriozek dio murrizketa batzuk egon daitezkeela, baina murrizketa hori nola kokatzen den aztertzen ari direla.</p>	<p>Unai Esnal pregunta si habrá consecuencias en el apartado de desplazamientos. Iñaki Iturrioz dice que puede haber algunos recortes, pero que se está analizando cómo se sitúa ese recorte.</p>
<p>11. Bestelakoak</p>	<p>11.Otras cuestiones.</p>
<p>Galdera gehiagorik ez dagoenez, 18:45ean bilera amaitutzat ematen da.</p>	<p>No habiendo más preguntas se levanta la sesión a las 18:45 horas.</p>

Donostian, 2020ko ekainaren 25ean


Begoña Irazu Irazusta
Idazkaria